


20/01/2022



Arrangoitzen, Gazteen finalaren ondotik : ezkerretik eskuinerat Abarratiako txapelkun ordeak, eta Azkaingo txapelkunak Pilotako arduradunen erdian. (Argazkia : Chantal Etchevers)

Lucu?
Lambert?
Guichandut.....?

FRANTZIAKO FEDERAZIOAREN TXAPELKETA AMATURRENTZAT

Igandean, urtarrilaren 16an, lau final esku-huska iragan dira Arrangoitzeko trinketean ikusle multzo handiaren aitzinean.

Goizean :

► Gazteetan

Larzabal /

Gonzalez (Azkaindarrak)40

Duhalde /

Etchebertz (Abarratia)22

Aurten, bigarren aldikotz finalean, Azkaingo bikotea nagusitu da diferentzia onarekin Abarratiakoari.

Aiherra



Xalbat Duhalde eta Mattin Etchevertz, J-Michel Hiribarne eta Cedric Noblia Abarratia pilota batasunaren 2 lehendakariak inguraturik (Arg :Abarratia)

Heriotze: Ponpoxeneko Robert Uhart

Joan den astean zendu zen Robert Uhart Ponpoxeneko nagusi zaharra, 84 urte zituen. Azken urteetan ez zen hain ontsa, etxetik ez zen jalgitzen. Bere denbora guzian Ponpoxenea etxaldean lan egin du, Anita bere emaztearekin. Lehenetarik izan baitzen traktura erosi zuen laboraria, beti prest zen auzoei eskukaldi baten ekartzeko, zerbitzu egilea zen.

Robert zenaren ehorzketak, astearte goizean egin ziren Hazparneko elizan, Peña auzoaldeko aihertarrak parroiaz Hazparneri lotuak baitira. Gure doluminak Anita bere emazteari, Mairder, Christine, Evelyne, Irène eta Bruno, 5 alaba-seei, hauen familiakoei eta ahaidegoari.

Pilota

Gure pilotari gazteek, joan den igandean Arrangoitzeko trinke-

tean jokatu zuten finalean ez dute sorpresarik egin, Frantziako txapelketaren kontu. Xalbat Duhalde eta Mattin Etchevertzek 40 eta 22 galdu zuten Azkaineko ekipa azkarraren kontra (Iban Larzabal eta Oihan Gonzalez). Deia ekipa hunen kontra galdua zuten Euskal Herriko finalean duela zombait aste. Bi finaletan galdurik ere, goresmenak merezi dituzte hein horretara heldurik. Aupa Abarratia pilota batasuna! Bestalde, umetxoak mailan, beti esku-huska, Paul Corret eta Ekhi Supervielle-Malmoise gazteak, Euskal Herriko txapelketaren kontu, finalerdietan Bardozekeo ekipoari nagusitu dira, 40 eta 32. Finala Aiherrako trinketean iraganen da, urtarrilaren 29an (15:00). Arratsalde eder baten mentura, orduan 3 finalen ikusteko parada ukanen baitugu.